



CONVENIO por el que se canaliza la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal concedida directamente por **AYUNTAMIENTO DE BILBAO - ÁREA DE SALUD Y CONSUMO** a la **FUNDACION GIZAKIA**, para el desarrollo del Programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas de Bilbao.

R E U N I D O S

De una parte, D. Álvaro Pérez Alonso, Concejal Delegado del Área de Salud y Consumo, del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, por delegación de la Junta de Gobierno de fecha 20 de mayo de 2026

Y de otra, D. Ignacio Palacio Areitio, Director de la Fundación Gizakia con CIF. G484730454

Ambas partes en la representación que ejercen, se reconocen con capacidad legal suficiente para la celebración del presente acto, y a tal fin

E X P O N E N

Primero.– El Ayuntamiento de Bilbao - Área de Salud y Consumo (en adelante Área de Salud y Consumo), en el marco de lo dispuesto por la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi (Art. 17.1.10), ejerce la competencia propia en el ámbito material “promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública” y, más específicamente, las funciones previstas por la legislación sectorial, Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

Segundo.– La Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias declara que constituye, para cada una de las Administraciones Públicas del País Vasco en el ámbito de sus competencias, área de actuación preferente y prioritaria, la promoción de la salud y prevención de las adicciones y drogodependencias.

Por otra parte, en su Título Sexto Capítulo Tercero, prevé la participación de la iniciativa social en la realización de actividades de promoción de la salud, prevención, asistencia, inclusión social, información, formación e investigación en materia de adicciones. En tal sentido dispone que las Administraciones Públicas Vascas apoyarán, conforme a sus disponibilidades presupuestarias, las iniciativas sociales promovidas por personas y entidades privadas que tengan por objetivo, entre otros, el desarrollo de actividades y programas de prevención de las adicciones y drogodependencias en el ámbito familiar, comunitario, educativo y laboral, determinando que para la concesión de subvenciones tendrán carácter preferente.

Tercero.– El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao, definido como instrumento necesario para articular y definir los principios y estrategias regidores de la actividad subvencional del Ayuntamiento de Bilbao, recoge dentro del régimen de concesión directa, sin necesidad de realizar una convocatoria pública, las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto Municipal.

Así, el Presupuesto de Gasto del Área de Salud y Consumo 2026, Capítulo IV, describe subvención nominativa a favor de la Fundación Gizakia, por importe de 11.300 euros, para el desarrollo del programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas de Bilbao.

P.E.P.: 2026-22000-4-00098-2026

A.P.G.: 2026-22000-31110-4819900

Cuarto.– La Fundación Gizakia, conforme establecen sus estatutos, constituye una entidad sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar, creada con el objeto de contribuir a la lucha contra la drogadicción en su más amplio concepto: prevención, rehabilitación y reinserción social. Específicamente, y en relación con el presente Convenio, cabe mencionar su dilatada experiencia en tareas de información, asesoría y apoyo a familiares de personas adictas de Bilbao.

Quinto.– El día 30 de marzo de 2026, la citada Fundación presenta el “Programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas” a desarrollar en el año 2026 junto con el Presupuesto de Ejecución por conceptos. Los citados documentos, Programa y Presupuesto, se acompañan como Anexos al presentar Convenio, Anexo I– “Programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas”, Anexo II– “Presupuesto de Ejecución”, acompañado de documento explicativo,

formando ambos parte del mismo, por lo que deberán ser suscritos por las partes.

Sexto.– La Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao en su sesión celebrada el día 20 de mayo de 2026 ha acordado conceder directamente a la Fundación Gizakia subvención por importe de 11.300,00€ prevista nominativamente en el Presupuesto de Gastos Municipal 2026 para el desarrollo del Programa “Apoyo a familiares de personas adictas de Bilbao”

Séptimo– Siendo los convenios el instrumento habitual canalizador de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos locales, el Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) y la Fundación Gizakia, en virtud de cuanto antecede, acuerdan definir los compromisos y condiciones dimanantes de la subvención directa prevista, suscribiendo el presente Convenio con arreglo a las siguientes:

ESTIPULACIONES

Primera.– El objeto del presente convenio es canalizar la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal 2026 concedida directamente por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao de fecha 20 de mayo de 2026, a la Fundación Gizakia para el desarrollo del Programa “Apoyo a familiares de personas adictas de Bilbao”, conforme a los contenidos incluidos en el citado Programa (Anexo I) y en el presupuesto de ejecución (Anexo II) disponiendo en consecuencia, los compromisos, condiciones, derechos y obligaciones de las partes suscriptoras del mismo.

Segunda.–La Fundación Gizakia en los términos establecidos en el presente Convenio se compromete al desarrollo del “Programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas de Bilbao.” conforme a los contenidos incluidos en el citado Programa (Anexo I) y en el presupuesto de ejecución (Anexo II).

Tercera.– La Fundación Gizakia, entidad de experiencia acreditada en la realización de programas y actividades descritas en el apartado anterior, en los términos del presente Convenio se compromete a la promoción, elaboración y desarrollo del Programa de Apoyo a Familiares de Personas Adictas de Bilbao. Con esta finalidad se encargará de:

- ❖ Dar respuesta a todas aquellas familias (compuestas por Madres, padres y parejas de personas adultas afectadas por cualquier tipo de adicción) que acuden en busca de orientación y asesoramiento,

independientemente de que la persona adicta se encuentre en tratamiento, en prisión, o sea consumidora en activo no adscrita a ningún tratamiento.

❖ Coordinar y optimizar las acciones que se llevan a cabo con las familias de personas adictas atendidas por el Programa de Apoyo a Familiares de personas adictas de la Fundación Gizakia, y el Negociado de Prevención de las Adicciones del Ayuntamiento de Bilbao.

Concretando y contextualizado en el precitado programa, se desarrollarán las siguientes actividades:

- Sistema de acceso al Programa de Apoyo a Familiares.
- **Orientación e intervención breve psicosocial**, Entrevistas individualizadas a los familiares.
- **Ciclos y sesiones formativas** que ofrecen información sobre adicciones y estrategias de intervención familiar.
- **Grupos de Apoyo Familiar** quincenales para favorecer el aprendizaje mutuo y grupal, con el fin de ir abordando las situaciones que cada familia debe afrontar.

Se entienden, asimismo incluidas en este contexto las actividades de planificación, coordinación y supervisión de las intervenciones realizadas, así como la elaboración de los informes y memorias correspondientes.

El programa objeto de apoyo económico será supervisado por dos personas, una de Fundación Gizakia y otra del Negociado de Prevención de las Adicciones, que se reunirán al menos dos veces al año (a mediados y al término del año natural), con la finalidad de efectuar un seguimiento del programa.

Cuarta.– La Fundación Gizakia se compromete a disponer de los recursos personales, materiales e infraestructura necesaria para el adecuado cumplimiento de la programación descrita en el apartado segundo. Así mismo se compromete a:

- Presentar a la aprobación del Área de Salud y Consumo el calendario de programación a desarrollar en el 2026.
- Informar al Área de Salud y Consumo de las actuaciones realizadas en el ámbito del Convenio durante el 2026, mediante la presentación de una memoria, en diciembre, así como poner a disposición de la citada Área cuanta información pueda demandarse por resultar de interés su conocimiento.
- Colaborar dentro del ámbito de actuación de la Fundación Gizakia en cuantas actividades o actuaciones puntuales, que en relación con este

Convenio, sean promovidos por el Negociado de Prevención de las Adicciones, sin que esto suponga un coste adicional.

- Comunicar con antelación suficiente cualquier eventualidad que pudiera repercutir en la realización de la programación convenida, acompañado de las alternativas de actuación en el supuesto de que dicha repercusión determine la imposibilidad de desarrollar alguna de las actividades previstas.

- Cumplir, especialmente en lo referente al personal adscrito a la realización de actividades que se relacionan en el presente convenio, con la normativa fiscal, laboral, Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el trabajo.

- Contemplar la perspectiva de género en todas las actividades derivadas del convenio.

Haciendo referencia a los criterios de uso de lenguas oficiales acordados en el Ayuntamiento de Bilbao, deberá garantizarse a las personas destinatarias del programa el uso de las dos lenguas oficiales, así como la presencia y el uso del euskera en todos los aspectos comunicativos (publicidad, información y atención al público, páginas web, redes sociales, cartelería, señalética, etc.).

El Ayuntamiento de Bilbao se reserva la facultad de realizar cuantas investigaciones y/o comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos asumidos por la Fundación Gizakia, así como la veracidad de los datos contenidos en las justificaciones e informes solicitados. El personal responsable de la Fundación vendrá obligado a colaborar con la Administración en la función de fiscalización.

Las actividades a realizar por la Fundación Gizakia en el ámbito del convenio serán gratuitas. Con carácter obligatorio, la entidad deberá publicitar la participación municipal en el desarrollo de este proyecto incluyendo el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao en los materiales que genere (dosieres, hojas informativas, folletos, carteles...) e informando a los responsables de los centros asesorados de la citada colaboración.

Quinta.– El Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) financia económicamente el desarrollo de la actividad convenida mediante la concesión de forma directa de una subvención descrita nominativamente en el presupuesto municipal, por un importe máximo de **11.300 €**, habiéndose efectuado las oportunas operaciones económicas-contables con cargo al presupuesto de gasto del Área de Salud y Consumo para el ejercicio 2026. El desembolso de la cantidad, en único pago, se efectuará a la firma del presente Convenio, no resultando necesaria la presentación de garantía.

Sexta.– La presente subvención es compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Séptima.– Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla. Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

Octava.– Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos del sector público para el contrato menor¹, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme

¹ Según lo dispuesto por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se consideran contratos menores los contratos de cuantía inferior a 15.000 euros (IVA no incluido), cuando se trate de contratos de suministros o de servicios

a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Novena.– La justificación de la presente subvención se realizará, según lo dispuesto por el Art 72 del RGS, presentación de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto que incluirá:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Esta memoria se entregará **antes del 1 de febrero de 2027**, el resto de la cuenta justificativa (puntos b y c) se entregará antes del 1 de marzo 2027.
- b) El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento
- c) La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose:
 - Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente.
 - Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:
 - o La identificación de la persona beneficiaria.
 - o La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.
 - o Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican. Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200€, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.
 - o Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

- Los costes indirectos, para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

Décima.- El reintegro de los importes percibidos y no dispuestos y cuantas reclamaciones de cantidad pudiera producirse se ajustarán a lo dispuesto por la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa de aplicación.

Undécima.- El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de suscripción del mismo retrotrayendo su efecto a 1 de enero de 2026 y finalizará el 31 de diciembre de 2026.

Duodécima.- El presente convenio se cumplirá a tenor de lo dispuesto en sus estipulaciones, siendo resueltas las dudas y lagunas que pudieran presentarse conforme a lo prescrito por la Ley de Subvenciones 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones normativas aplicables por razón de la materia.

Y en prueba de conformidad lo firman las partes intervinientes en el lugar y fecha al comienzo recogidos.

CONCEJAL DELEGADO DEL
ÁREA DE SALUD Y CONSUMO
DEL EXCMO. AYTO. DE BILBAO

D. Álvaro Pérez Alonso

DIRECTOR FUNDACION GIZAKIA

D. Ignacio Palacio Areitio



HITZARMENA, BILBOKO UDALAREN OSASUN ETA KONTSUMO SAILAK GIZAKIA FUNDAZIOAri zuzenean emandako dirulaguntza izenduna bideratzeko, Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa garatzeko.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Alvaro Perez Alonso, Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotzi ordezkaria (Gobernu Batzordearen 2026ko maiatzaren 20ko eskuordetzea).

Eta, bestetik, Ignacio Palacio Areitio, Gizakia Fundazioaren zuzendaria (entitatearen IFK: G48473045).

Bi alderdiek, ordezkari gisa, egintza hau aurrera eramateko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Bat.– Bilboko Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak (aurrerantzean, Osasun eta Kontsumo Saila), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen esparruan (17.1.10 art.), berezko eskumena egikaritzen du «osasun publikoaren sustapena, kudeaketa, defentsa eta babes» arlo materialean; eta, zehazkiago, legeria sektorialak (1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa) aurreikusitako funtzioak betetzen ditu.

Bi.– Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak adierazten du osasunaren sustapena eta adikzioen eta

droga-mendekotasunen prebentzioa lehentasunezko jardun-eremuak direla Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoentzat, bakoitza bere eskumenen esparruan.

Bestalde, seigarren kapituluko hirugarren tituluan, gizarte-ekimenak osasuna, prebentzioa, laguntza, gizarteratzea, informazioa, prestakuntza eta ikerketa sustatzeko jardueretan parte hartzea aurreikusten da, adikzioen arloan. Zentzu horretan, Legeak xedatzen du euskal administrazio publikoek pertsona eta erakunde pribatuek sustatutako gizarte-ekimenei lagunduko dietela, beren aurrekontu-baliabideen arabera, baldin eta ekimen horien helburua bada, besteak beste, familia-, komunitate-, hezkuntza- eta lan-eremuan adikzioak eta droga-mendekotasunak prebenitzeko jarduerak eta programak garatzea. Horrez gain, zehazten du ekimen horiek lehentasuna izango dutela, diru-laguntzak ematerakoan.

Hiru.- Bilboko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa da Bilboko Udalaren dirulaguntza-jardueraren printzipio eta estrategia arautzaileak artikulatzeko eta definitzeko beharrezko tresna. Eta, diru-laguntzak zuzenean, deialdi publikorik egin beharrik gabe, emateko araubidearen barruan, Udal Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak jasotzen ditu.

Horrela, bada, Osasun eta Kontsumo Sailaren 2026ko gastu-aurrekontuak, IV. kapituluan, Gizakia Fundazioaren aldeko 11.300 euroko dirulaguntza izenduna jasotzen du, Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa garatzeko.

P.E.P.a: 2026-22000-4-00098-2026

A.P.G.a: 2026-23000-31110-4819900

Lau.- Gizakia Fundazioa, bere estatutuetan aurreikusita dagoen moduan, irabazi-asmorik gabeko entitatea da, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa ditu. Droga-mendekotasuna borrokatzeko sortu zen, borroka hori zentzu zabalean hartuta; alegia, prebentzioa, errehabilitazioa eta gizarteratzea aintzat hartuta. Zehazkiago, eta Hitzarmen honi dagokionez, esan beharra dago Fundazioak eskarmentu handia duela Bilboko drogazaleen senitartekoei argibideak, aholkularitza eta laguntza ematen.

Bost.- 2026ko martxoaren 30ean, Fundazioak «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa» aurkeztu zuen, urte horretan zehar garatzeko, kontzeptuka gauzatzeko aurrekontuarekin batera. Hitzarmen honen eranskin gisa doaz aipatutako dokumentuak: «Drogazaleen senideei laguntzeko programa», I. eranskin gisa; eta, «Gauzatze aurrekontua», azalpen-

dokumentuarekin batera, II. eranskin gisa. Biak dira hitzarmenaren parte, eta, beraz, alderdiek sinatu egin beharko dituzte.

Sei.– Bilboko Gobernu Batzordeak, 2026ko maiatzaren 20an egindako saioan, erabaki zuen Gastuen Udal Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako 11.300€ko dirulaguntza ematea, zuzenean, Gizakia Fundazioari, «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa» garatzeko.

Zazpi.– Hitzarmenak direnez tokiko aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna, Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Saila) eta Gizakia Fundazioak, aurreko guztiarekin bat etorritz, erabaki dute aurreikusitako dirulaguntza zuzenetik eratorritako konpromisoak eta baldintzak definitzea, eta hitzarmen hau sinatzen dute, honako hauen arabera:

H I Z P A K E T A K:

Bat.– Hitzarmen honen xedea da 2026ko Udal Aurrekontuan izendun gisa jasotako, eta Gobernu Batzordearen 2026ko maiatzaren 20ko Erabaki bidez Gizakia Fundazioari zuzenean emandako dirulaguntza bideratzea. Dirulaguntza hori eman da, «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa» garatzeko, bertako ataletan jasotako edukiaren arabera (I. eranskina) eta emandako gauzatze-aurrekontuarekin bat etorritako (II. eranskina). Horren harira, hitzarmena sinatzen duten alderdien konpromisoak, baldintzak, eskubideak eta betebeharrak ezartzen dira.

Bi.– Gizakia Fundazioak, Hitzarmen honetan jasotako baldintzetan, konpromisoa hartzen du «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa» aurrera eramateko, bertan jasotako edukiei (I. eranskina) eta gauzatze-aurrekontuari (II. eranskina) jarraituta.

Hiru.– Gizakia Fundazioak egiaztatutako esperientzia dauka aurreko atalean deskribatutako programak eta jarduerak aurrera eramaten, eta «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa» sustatu, egin eta garatzeko konpromisoa hartzen du, Hitzarmen honetan jasotako baldintzetan. Helburu horrekin, honako eginkizun hauek izango ditu Fundazioak:

❖ Orientabide eta aholkularitza bila doazen familia guztiei erantzutea, adikzioa duen pertsona tratamenduan edo espetxean bada ere, edo inolako tratamendurik jasotzen ez duen jarduneko kontsumitzailea bada ere.

❖ Gizakia Fundazioak «Bilboko drogazaleen senideei laguntzeko programa»n eta Bilboko Udalak Adikzioen Prebentziorako Negoziatuan artatutako droga kontsumitzaileen senitartekoekin egindako ekintzak koordinatu eta optimizatzea.

Bestalde, aipatutako programaren barruan, honako jarduera hauek egingo dira:

- Senideei laguntzeko programan sartzeko sistema.
- Senideentzako **orientabide eta aholkularitza** indibidualizatua.
- Adikzioei eta esku-hartze familiarreko estrategiei buruzko **zikloak eta prestakuntza-saioak**.
- **Familia-laguntzako taldeak**, hamabostean behin, prestakuntza-zikloetan parte hartu ostean talde-orientazioa jasotzen jarraitu nahi dutenentzat.

Egindako esku-hartzeen plangintza, koordinazioa eta gainbegiratzea ere eskainiko dira, eta dagozkion txostenak eta memoriak egingo dira.

Laguntza ekonomikoaren xede den programa bi pertsonak gainbegiratuko dute: bata, Gizakia Fundaziokoa, eta, bestea, Adikzioen Prebentziorako Negoziatukoa. Urtean bi aldiz bilduko dira, gutxienez (urte naturalaren erdialdean eta amaieran), programaren jarraipena egiteko.

Lau.- Gizakia Fundazioak konpromisoa hartzen du bigarren atalean deskribatutako programazioa behar bezala betetzeko behar diren giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak izateko. Halaber, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Osasun eta Kontsumo Sailari 2026an garatu beharreko programazioaren egutegia aurkeztea, onetsi dezan.
- Osasun eta Kontsumo Sailari Hitzarmenaren barruan 2026an zehar egindako jarduketan berri ematea, abenduan memoria bat aurkeztuta; eta Sailak eskatzen duen informazioa ematea.
- Gizakia Fundazioaren jarduera-eremuaren barruan, Adikzioen Prebentziorako Negoziatuak Hitzarmen honi dagokionez sustatzen dituen jarduera edo jarduketa puntual guztietan laguntzea, horrek kostu gehigarriak eragin gabe.
- Hitzartutako programazioa gauzatzean eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea, behar besteko aurrerapenarekin eta

jarduteko alternatibekin batera, baldin eta gorabehera horrek aurreikusitako jardueraren bat aurrera eramatea eragozten badu.

➤ Zerga-, lan-, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun- eta higie- araudia betetzea; batez ere, hitzarmen honetan zerrendatzen diren jardueretara atxikitako langileei dagokienez.

➤ Hitzarmenaren ondoriozko jarduera guztietan genero-ikuspegia aintzat hartzea.

Bilboko Udaleko hizkuntza ofizialak erabiltzeko adostutako irizpideak aipatuz, programaren hartzaileei bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko zaie, bai eta euskararen presentzia eta erabilera ere, komunikazioaren alderdi guztietan (publizitatea, informazioa eta jendaurreko arreta, webguneak, sare sozialak, kartelak, seinaleak, etab.).

Bilboko Udalak beretzat gordetzen du egokitzen jotako ikerketa eta/edo egiaztapenak egiteko ahalmena, Gizakia Fundazioak bere gain hartutako konpromisoak betetzen direla eta eskatutako justifikazio eta txostenetan jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Fundazioaren arduradunek Administrazioarekin lankidetzan jardun beharko dute fiskalizazio-eginkizunetan.

Gizakia Fundazioak Hitzarmenaren eremuan egindako jarduerak doakoak izango dira. Entitateak, nahitaez, jakitera eman beharko du Udalak proiektua garatzen lagundu duela: batetik, sortzen diren materialetan (dosierak, informazio-orriak, eskuorriak, kartelak...) Udalaren logotipoa jarrita (Osasun eta Kontsumo Saila, Adikzioen Prebentziorako Negoziatua); eta, bestetik, aholkua jasoko duten zentroetako arduradunei lankidetzan horren berri emanda.

Bost.– Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Saila) hitzartutako jarduera finantzatzen du. Horretarako, Udal Aurrekontuan izendun gisa jasotako dirulaguntza ematen du, zuzenean, eta, gehienez ere, **11.300€**-ko zenbatekoarekin. Dagozkion ekonomia- eta kontabilitate-eragiketak egin dira, Osasun eta Kontsumo Sailaren 2026ko gastu-aurrekontuaren kontura. Ordainketa bakarra egingo da, Hitzarmen hau sinatzean, eta ez da beharrezkoa izango bermerik aurkeztea.

Sei.– Dirulaguntza hau bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz

erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

Zazpi.– Programan funtsezko aldaketak egin aurretik, baimena eskatu beharko zaio Bilboko Udalari, idatziz. Udalak beren-beregi eman beharko du horretarako baimena. Funtsezko aldaketak egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuan eta kronograman izango dituzten ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak dagokion sailaren ordezkariari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

- Aldaketak helburu orokor eta/edo espezifikoetan.
- % 20tik gorako aldaketak onartutako aurrekontu-partidetan (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezingo diete zeharkako kostuei eragin), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Diru-laguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onartu ahalko da, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

Zortzi.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira argi eta garbi diruz lagundutako jardueraren izaera dutenak, premia-premiazkoak direnak eta Hitzarmenean ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua inola ere ezingo da izan merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptu baten zenbatekoa handiagoa denean sektore publikoko kontratuen legeriak kontratu txikirako¹ ezarritakoa baino, entitate onuradunak hiru eskaintza eskatu beharko dizkie, gutxienez, beste horrenbeste hornitzaileari, obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna entregatu baino lehen.

Bestalde, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzen arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta, ekonomikoki abantailatsuena den proposamena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da, espresuki.

Bederatzi.– Dirulaguntza hau justifikatuko da dagokion kontua eta gastu-ziurtagiriak aurkeztuta, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 72. artikulua xedatu bezalaxe. Justifikazioak honako hauek jasoko ditu:

- a) Jarduketan memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehazten dituena. Memoria hori **2027ko otsailaren 1a** baino lehenago aurkeztuko da, eta, gainerako justifikazio-kontua (b eta c puntuak), berriz, 2027ko martxoaren 1a baino lehenago.
- b) Programa egikaritzeari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, Udalak emandako ereduaren arabera.

(1) *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikiak 15.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZa kanpo), baldin eta horniketa- edo zerbitzu-kontratuak badira.*

- c) Programa betearazteko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak. Horretarako, honako hauek bereiziko dira:

- Programa gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten kostuak. Guztiz justifikatuta egon beharko dute, ordainagiri bidez edo froga-balio baliokidea duten bestelako agirien bidez.

- Gastuak justifikatzeko agirietan, honako datu hauek jasoko dira, nahitaez:

- o Onuradunaren identifikazioa.
- o Gastuaren xedearen deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.
- o Era berean, justifikazio-dokumentuak justifikatzen duten programara mugatuko dira. Salbuespenez, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonak noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako prestazioaren zenbatekoa jasotzen duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahalko da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NANA, AIZ edo pasaporte). Ordainsaria 200 € baino gehiago bada, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banku-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langileen gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

- Zeharkako kostuak, espresuki eskatzen ez bada, ez dira agiri bidez justifikatu beharko. Kostu horiek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauarekin bat etorrira eta,

betiere, kostu horiek jarduera gauzaten den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Justifikatzeko orduan, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak aitortutakoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa, zeina egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko baitzaie.

Hamar.– Jasotako eta erabili gabeko zenbatekoak itzultzeko, eta diru-kopuruei buruzko erreklamazioak egiteko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa bete beharko da.

Hamaika.– Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den datan, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

Hamabi.– Hitzarmen hau bere xedapenetan jasotakoaren arabera beteko da, eta sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta arlo horretan aplikatzekoak diren gainerako arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Eta ados daudela adierazteko, parte hartzen duten alderdiek sinatu egiten dute, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

BILBOKO UDALAREN
OSASUN ETA KONTSUMO SAILEKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Álvaro Pérez Alonso jauna

GIZAKIA FUNDAZIOAREN
ZUZENDARIA

Ignacio Palacio Areitio jauna